


# Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1996ko otsailaren 16a



## Nafarroako bentak bideetan nagusi

■ Joan den mende hasierakoak dira Nafarroako lehenengo bentak. Bide bazterretan, dotore, zutik dira oraindik gehienak, nahiz eta, denbora tarte, aldaketak izan dituzten. Zaldiek tiratutako gurdi-tako bidaiarientzat eraiki zituzten bentok; gurdiak desägertuta, beraz, galdu egin dute hasierako zentzua. Garaian garaiko aldaketen aurrean, hala ere,

egokitzen saiatu dira, eta lehen gurdiekin bezala, gaur autoekin egiten dute lan. Benten jatorrizko zeregina, hain zuzen, bidaiaria zerbitzatzea izan da, eta gaur egun ere, bakoitzak bere modura, lan horretan jarraitzen dute. Nafarroako bazter askotan badaude oraindik bentak, urtetako bizimodua egunero aurrera eramanez. ■

### Zubian barna

BINGEN AMADOZ



*Sebastian bat bada zeruan,  
ta Sebastian bakarra munduan.  
Hura da santua, hau dugu gotzaia  
Kalataiudetik etorria.*

Gure Sebastianek ez du kopla hori bere jatorrizko bertsoan ezagutuko, noski, nahiz eta bere baitan dagoen mezua erlijiosoa izan.

Ez dira Erroman txikikerietan ibiltzen beren artzaiak aukeratzekoan. Zuzendu behar dituztenen kultura eta hizkuntzaren ezagupena ez omen dago kargua betetzeko behar dituzten lehen-tasunen artean.

Sebastian, gure Xaastian, hala esaten baitzaio hemengo hizkeran, nabarmendu zaigu aste honetan, preserbagailuaren erabilpena zenbait kasutan eta ezinbestekoan zilegi izan daitekela esatean.

### Xaastinen aholkuak

Elizako goi-mailakoak hain arkai-koak, hain aurre-historikoak izanik, atzerakoen artean baita bera ere atzerakoia den artzapezpiku nafarra zertxobait *progreago* dela dirudi. Jakina da itsuen erresuman errege izan ohi dela betokerra.

Xaastinek ate-zirikitu bat zabaldu digu botiketara hurbildu eta aspaldian asmatu gomatxoak eskatzeko.

Beharrik! Azkenean, begiak irekitzen lagundu gaitu! Berak agintzen zuenaren zain ginen denok eta orain pekatua horren larria ez dela jakitean, hasperen bat bota eta arnasa hartu digu sakon-sakonetik.

Agian, oraingo honetan higuigarri bezain ikutuezinak izandako zera horiek zertarako diren eta nola erabiltzen diren esan beharko digu, hasitako lana borobiltzeko.

Jakinduri ezean bizi garenok, gu pekatari mixerable eta zuzenezinak, bizimodu petralean mugitzen garen herri xeheko bizidunak eskertu beharko diogu bere irakaskintza, izurriteaz libratuko gaitu eta.

Kontutan hartu beharko digu, hori bai, izurritea benetan uxatzeko ematen digun aholku xarmangarria.

Garbitasuna soilik segurtzen digu gure joera naturalen ukapenak. Xaastinen egjak errexak dira, egitan ulergarriak.

Ez baduzu arriskutan ibili nahi, ez egin! Ez baduzu pottoldu nahi ez jan eta izerdirik ez baduzu bota nahi, ba ez edan, kontxo!

Gomendio bakar bat geratzen zaigu ematea. Mundu honetan gertatzen dena ez baduzu jakin nahi, egin zaitez goztai, edo hobeago, artzapezpiku! X

EREA



## GUERE AUKERAK

### KONTZERTUAK

**Elizondo:** Balla Nelly taldeak joko du Casino tabernan gaur gaueko 10.30etan.

**Gares:** Funda Mental aretoan festa brasildarra egiten dute gaur 22.30etan. Bihar, berriz, Albert Pla ariko da kantari 23.00etan. Sarrera, aldez aurretik hartuz gero, 1.200 kosta da eta takilan, 1.500.

**Iruñea:** *De dos en Blues Band* taldeak Alegria tabernan joko du datorren ostegunean, hilak 22, gaueko 9.30etan.

**Iruñea:** *Nacion Reixa* taldeak heldu den ostegunean ere, Reverendos dantzalekuan kontzertua eskainiko du 22.00etan.

### ZINEMA

**Tafalla:** Cinema Español-en *Ladybird*, *ladybird* filmea eman-goto dute 20.00etan eta 22.30etan. Emanaldiak datorren ostegunean izanen dira eta sarrera 250 pezeta kostako da.

### ANTZERKIA

**Iruñea:** *Nabarrerriako Mesonean Melody Sisters* taldeak *Cuadros clínicos* lana antzetzuko du datorren asteartean. Emanaldia gaueko 21.30etan izanen da.

**Iruñea:** Burgoen plazan haurrentzako antzerkia izanen da igandean. Teatro bajo la arena taldeak *Poliki, poliki* lana antzetzuko du arratsaldeko 18.00etan.

### ERAKUSKETAK

**Tafalla:** Kultur Patronatuko erakusketa aretoan J. Ignacio Baztanen olioak daude ikusgai otsailaren 28a bitartean.

**Zangoza:** Kultur Aretoan Santiago de Santiago eskultorearen lanak ikusteko parada dago. Erakusketa otsailaren 25 arte egonen da zabalik.

### BERTSO SAIOA

**Urrotz:** Bertso afaria dago herriko ostatuan bihar 21.00etan. Bertso kantari Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso ariko dira.

### MENDI IBILALDIA

**Iruñea:** Nafarroako Kirol Elkarte-ko mendi eskolak inganderako Larrau mendatetik, Otxogorrigaina mendia igoz, Belagoara doan mendi ibilaldia antolatu du. Izena eman nahi duenak elkar-tearen egoitzatik pasatu behar du: Jarauta kaleko 78ra jo edo 22 43 24 telefonora deitu.

### BESTELAKOAK

**Iruñea:** Nafarroako Kirol Elkarte-ko Belen Eguzkiza eta Eugenio Gorrotxategi mendizaleek Txilen oinez eta mendiko eskiez egindako espedizioaren diapositibak ikusteko parada dago. Emanaldia, Jarauta kaleko 78. zenbakian izanen da 20.00etan.

**Iruñea:** Zaldiko Maldiko elkar-tean Txema Ramirez kazetari eta EHUko irakasleak Prentsa kabineteen eragina komunikabideetan hitzaldia eskainiko du arratsaldeko 20.00etan.

## nafarkronika

Patxi Larrion


# Ospakizunak

**A**uditoriuma ezbaian izan da orriotan. Era guztietako ikuskizunak eskainiko direla medio, hainbat jarduera kultural galarrizita zaizkigu. Gogoan ditut, orrialde hauek astero kaleratzea ahalbidetu zuen kanpaina hartan izandako arazoak, segurtasun kontuak argudiatuz, isuna jarri ziguten, baimenik gabe ospatutako festa omen zen gurea, demanda hori, gerora argitu zenez, erakundeen utzikeria

eraginda izan zen. Egun, utzikeria bazterturik, *Anaitasuna* segurtasun *tenplua* bihurtu nahi da. Gustuko musika taldea aurrean, eszenatoki ondoko izerdiak, jauziak eta orroak fini dira. Pabilioia, ez da honezkerok anaitasunarendako biltokia izanen.

eraginda izan zen.

Gehiengo berria osatzeko bidean den espainiar eskuinak ere ez omen ditu gutxienezko segurtasun neurriak bete. Inoiz bete al ditu? Elkarrizketaren *botereak* emendatzen ez badu bibotedunaren bisitaldia ikuskizun txepel bilaka daiteke. Aurrekoa gogoan, alkategaiaren eskutik kantxan eman zen maitasun aitortpena kanpoan eman behar honetan. Noizko ospakizuna?



## asteko pertsonaiak



Fernando Sebastian Iruñeko artzapezikua

■ Eliza katolikoak preserbatiboaren erabileraren inguruan izan duen dotrina hankaz gora gelditu da aste honetan. Frantziako Apezpikutzako Gizarte Batzordeak, hain zuzen, nahiz eta hainbat *ñabarduraz* hornitu, hiesa ez kutsatzeko preserbatiboa erabiltzea zilegi dela zioen baieztapena gezurtatu egin zuen. Frantziar ezetik Nafarroan ere izan da iskanbilarik preserbatiboa dela-eta. Fernando Sebastian Iruñeko artzapezikua, ildo beretik, preserbatiboa gomendatu du bikote egonkorra ez dutenentzat eta harrenan sexualak ez ukaitzea jasan ezin duenarentzat. Hala ere, Fernando Sebastianen irudikoz abstinentziak bakarrik eragotzi dezake hiesaren kutsadura.



Antonio Perez Prados NUPeko errektorea

■ Antonio Perez Prados Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) errektorea Parlamentuko Hezkuntza batzordean izan zen, unibertsitatearen izena aldatzeko berak zuzentzen duen erakundeak egin dituen kudeaketak eta lanak azaltzeko. NUPeko klastroak izen aldaketa eskatu zuen eta eskaera hori Perez Pradosen herrialdeko Gobernuari igorri zion. Ildo honetan, IUK NUPeko errektorearen agerraldia eskatu zuen. Parlamentuan errektoreak ez zuen arazoitu unibertsitateak zergatik nahi duen izen aldaketa. Hala ere, bai berak bai talde parlamentarioek NUPek Nafarroako Unibertsitatea izena hartu behar duela iritzi zioten, nafar guztien unibertsitatea delako.

## ahaztu gabe!



### BIZIKLETA MARTXA

**Iruñerria:** *La tortuga perezosa* elkarteak biharko, Iruñerrian barna, txirindularitza martxa antolatu du. Martxaren helburua Itoizko urtegiko lanak gelditzeko eskatzea da eta, era berean, Iratiko bailaran egiten ari den kaltearen aurka egiten da. Txirindulariak eguerdiko hamabietan abiatuko dira eta Iruñeko Sanduzelai, Txantrea, Arrotxapea, Alde Zaharra eta Zabalgunea auzoetan eta Barañain herrian barna ibiliko dira besteak beste.

Txirindularien martxa arratsaldeko ordu bata eta erdietan bukatuko da Nafarroako hiriburuko Alde Zaharrean. Ondoren, «herri bermutada» izanen da Itoizko urtegiko lanen aurka. Entzutegi Nazionalak joan den abenduaren 29an eman zuen autoan, urtegiko lanak gelditzeko 24.000 milioi pezetako fidantza ordaintzeko eskatu zuen. Hau aintzat hartuz, txirindularitza martxako antolatzaileek zera diote: «24.000 milioi arrazoi ditugu lanak gelditzeko». Hori dela-eta, martxan eta arratsaldeko manifestaldian parte hartzera deitu dute.

## adi!

### Euskalerria Irratia FM 91,4

Egunero astelehenerdik ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 11.00etara.

### Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteendako saioa.

### Aralar Irratia FM 106,2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonala ospetsuei elkarrizketak.

### Karrape Irratia FM 107,8

Asteazken zehar, 12.20etatik 12.35etara *Gauza guztien gaitetik*, edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak.

Herriz Berri

# Inauteri egunak Nafarroan

*Herrialdeko hainbat eta hainbat herritan, mozorroak eta jai giroa nagusi izango dira asteburu honetan*

**M**ozorroak izanen dira nagusi asteburu honetan Nafarroako hainbat eta hainbat herritako inauterietan. Zangozan, Atarrabian eta Tafallan gaur bertan hasiko dira, larunbatean Erriberrin, eta igandean Beran, Elizondon, Lantzen eta Altsasun. Mozorroak eta jai giroa non-nahi.

Erredakzioa / Iruñea

UITZIKOAK eta Eratsungoak izan ziren lehenbizikoak. Zubietan, Ituren, Leitza eta Sunbilla-koak ailegatu ziren ondoren, eta asteburu honetan, berriz, Nafarroako hamaika herritara iritsiko dira inauteriak, urtero-urteroko mozorro egunak.

Gaurko egunarekin batera Barañain, Zizur Nagusia, Irurtzun, Zangoza, Tafalla eta Atarrabiako inauteriak hasiko dira. Barañainen, arratsaldeko 8etan kalejira izanen da eta inauterietako pertsonaiak diren zaku-zaharrak, momorrotxoak, sorginak eta zaldikoak ibiliko dira kaleetan barrena. Bihar, berriz, Jaco de Licrasen epaiek antzeztuko dute Udaletxeko plazan, eta azkenik urkatu eta erre egingen dute.

Zizur Nagusian gaur ospatuko dituzte inauteriak. Arratsaldeko 6etan Dantza eta Musika Talerretako kideek jaialdia eskainiko dute. Irurtzunen ere gaur hasiko dira inauteriak. Arratsalde partean haurrentzako inauteria izanen da, eta gaueko 10etan eskolan herri afaria egingen dute. Bihar, arratsaldeko 7etan, Lantzeko inauterian antzezpina egingen dute herritarrek kaleetan barrena. Asteartean, azkenik, Tartalo pertsonaia izanen da protagonista. Haren bila ibiliko dira herritarrek, zigorra ezartzeko.

Zangozan Rocamador dantza taldearen ikuskizunak emanen die gaur hasiera inauteriei. Bihar, berriz, arratsaldeko 5etan, herriko txikien mozorro desfilea izanen da, txistulari, gaitero eta buruhandi eta erraldoiek lagunduta.

Tafallari dagokionez, gaur arratsaldeko 8.30etan, Laguneroen erronda egingen dute zantzar, dantzari eta Hilargi fanfarreko kideek.

Bihar, berriz, mozorro desfilea izanen da eta Alaitu taldeak mitologiako erraldoiak erakutsiko ditu. Igandean, eguerdian, Nafarroako plazan inauterietako erronda egingen dute. Txarangak eta zantzarrek bertan izanen dira.

Eta asteartean, Laguneroari su emanez agurtuko dituzte arratsaldeko 8etan inauteriak.

Atarrabian, azkenik, Zinzarri txarangaren eskutik kalejira



Asteburuarekin batera inauteriak ailegatu dira herri anitzetara

ARTXIBOKOA



Mozorroak izanen dira nagusi gaurtik atera bitartean Nafarroan

ARTXIBOKOA

izanen da gaur arratsaldeko 7.30etan, eta ondoren babarrun jate herrikoia Etxebeltza elkartean. Bihar, ordu berean, arratsaldeko 7.30etan, txistulari, akordeoilari eta erraldoiak aterako dira kalera, mozorrotutako herritarren desfilea laguntzeko.

**Igandean hasiko dira Lantzen eta Altsasun** • Bihar, larunbata, Erriberrin izanen dira inauteriak. Arratsaldeko 4etan haurrak izanen dira protagonista. Mozorroturik, herritarren aurrean egingen dute desfilea. Arratsaldeko 6etan, bestalde, pregoia irakurriko dute udaletxean, eta herri inauteriari hasiera emanen

zaio. Fraile Anaiak gaiteroek eta Erriberriko Musika Bandak jarriko dute giroa.

Igandea inauterietako lehen eguna izanen da, halaber, Altsasun, Arizkun, Etxalarren, Elizondon, Goizuetan, Lantzen, Lesakan, Unanuan, Urdazubin, Urdiainen, Beran eta Zugarramurdin. Altsasun, arratsaldeko 4.30etan, haurren inauteria hasiko da. Asteartean, berriz, eskean ibiliko dira herri barrena, eta arratsaldeko 7.30etan herri inauteriari emanen diote hasiera. Momotxorroak eta maskaririk izanen dira protagonista nagusiak.

Arizkun mozorroak kalera

aterako dira eskean igandean nahiz astelehenean. Asteartean, berriz, mozorro eta damekin batera hartza eta hartazaina ibiliko dira karriketan. Gazteek bertsoak botako dizkiete eta korrika aldeginean dute mozorroen maskurietatik ihes.

Etxalarren herriko kintoen bazkariak emanen die hasiera inauteriei, igandean. Astelehenean, berriz, egun osoan herriko auzoetan eskean ibili ondoren herri afaria egingen dute gau partean.

Elizondoko inauteriak igandea eta asteartea bitartean egingen dituzte. Igandean, hain zuzen, Elizondoko txarangak lagunduta

Altsasuko maskarita eta momorrotxoak herriko karriketan barrena ibiliko dira asteartean

tanborrada izanen da arratsaldeko 5etan. Astelehenean, ordu berean, haurrek erakutsiko dituzte euren mozorroak eta txokolata janen dute. Asteartean, azkenik, goizeko 11etan, herriko taldeek mozorro desfilea egingen dute eta arratsaldean Quarteto taldeak jarriko du musika.

Goizuetari dagokionez, beste herrietan bezala, haurren inauteriak emanen die hasiera ospakizunei igandean. Astelehenean mozorroak ibiliko dira kaleetan zehar eskean, eta asteartean, berriz, dantzan aterako dira goiz partean. Arratsaldean Zalmigiantza ospetsua egingen da urtero bezala.

Lantz herriko inauteriak ere ospetsuak dira ospetsuen artean. Igandean haurren inauteria hasiko da. Astelehenean Miel Otxin izanen da inauterietako protagonista, gainontzeko mozorro eta pertsonaia bereziki batera. Miel Otxin kaleetan ibiliko da herritarrek erreko duten arte.

Lesakan, bestetik, Zaku-Zaharrak dira ezagunak. Igandean aterako dira kalera lesakarrak harrapatu nahian. Astelehenean goizean, berriz, mozorro desfilea egingen dute herriko talde ezberdinek.

Unanuan ere igandean haurrek inauteria izanen da, eta asteartean Muttu eta Mamuxarroak ibiliko dira herri barna, bisitari guztien atzetik, makilaz jo nahian. Urdazubin, bestalde, eskean aterako dira inauteriei hasiera emateko igandean, eta baita astelehenean eta asteartean ere. Horretaz gain, mozorroak ikusi ahal izanen dira non-nahi eta musikak alaituko ditu herriko taldeen bazkari eta afariak. Urdiainen ere igandea eta asteartea bitartean izanen dira inauteriak. Haurrena hasterako eta herri inauteria asteartean.

Beran igandean inudeak eta Artzainak ibiliko dira kalean dantzan, goizean goiz. Egunk handiena, hala ere, astelehenekoa izanen da. Goizean eskean ibili ondoren, mozorro desfilea egingen dute arratsaldean. Altsasuko karrikan. Asteartean haurrak izanen dira nagusi. Zugarramurdin inauterietan ere herriko gazteak izanen dira protagonista. Eskean ibiliko dira herri barrena.

Burlatan eta Agoitzen ere izanen da zer ikusi eta zer egin asteburu honetan, inauteriak direla. Burlatan Lucas de Aierbe pertsonaia izanen da bestaren ardatza, eta Agoitzen astearteko mozorro desfilea. X

Benta guztiek zeregin bertsua badute ere, bakoitzak ezaugarri propioak ditu. Orriotara Nafarroako hainbat bentaren adibideak ekarri ditugu. Ultzamakoak, izen handikoa, erronka berriari egin behar dio aurre. Mugiroko Benta Irurtzun-Andoain autobia du orain ondoan. Donamariako Benta da asmo berrienak dituena. Lizarrustikoa, atsekabearen eta ilusioaren benta da. Guztien artean hau da betiko benten nortasunari hobekien eutsi diona: Benta bakoitza, finean, bere bidea jarraitzen saiatzen da.

### Mugiroko Benta

## Bidean zerbitzari

NAFARROAKO benten artean zaharretakoa izanen da Mugirokoa, 200 urte inguru baitu. Ina Soravilla gaur egungo jabearen herenaitonak eraiki zuen, hain zuzen. «Ezkundu zenean emaztearen familiak etxe bat eman zion dotean alabari, baina bakarrik bera bizirik zegoen bitartean eduki ahal izateko. Gure herenaitonak, beraz, txarrena gertatzen zekotan, beste etxe bat eraikitzea erabaki zuen. Mugiroko Benta ezizik, Erreniegako gainean ere beste bat egin zuen. Errepide berriarekin, hala ere, baztertua gelditu zen». Honela hasi zen Mugiroko Bentaren historia luzea. Herenaitonak hasitakoa bere ondorengoek atera dute aurrera gero, eta egun Ina Soravillak hartu du bere gain ardur hori.

Bentako lana, hala ere, ezaguna du, bertan jaioa baita. Haurra zenean mendian barrena eskolara joaten zeneko garaia gogoratzen du maiz. Etxe izan duen Mugiroko Benta, hala ere, ez da beti berdina izan. «Benta gurdietako bidaiariak hartzeko eraiki zen eta, beraz, gurdia bera eta zaldiak gordetzeko lekua bazuen, ostatuaz eta logeaz gain». Denborak aurrera egin ahala, noski, garaian garaiko aldaketek benten aldaketa eragin zuten. «Lehen gurdia gordetzen genituen lekuan jatetxea dugu orain».

Bada, hala ere, Ina Soravillak nabarmendu duenez, denborak ezin aldatu izan duenik ere: «Mugiroko Benta, funtsean, betikoa da. Aldaketak izan dira, noski, baina gure zeregina bera da. Errepidean gora eta behera ibiltzen direnak dira gure bezero, lehen gurdietan etortzen zirenak egun autoan allegatzen dira».

Bidaiaria zerbitzatzeko gogo eta nahi hori da, hain zuzen ere, Ina Soravillak gehien azpimarratu duen ezaugarria. «Benta ez da bakarrik dirua irabazteko bide bat. Elur anitzeko gau asko emandut nik sutondoan bidaiariekin, guztientzako gelarik ez genuenean. Bentak bidaiariari zor dion arreta da hori».

Mugiroko historia zerbitzari bada, bidetik igarotzen ziren eta diren bidaiariek sortutakoa da. Kutsu berezia eman dio horrek Mugiroko Bentari, azkartasuna, alegia. «Hona datorrenak azkar bazkaldu nahi du, nonbaitetik nonbaiterainoko bidean dago eta. Beste benta askotara lasaitasuna bila allegatzen dira bezeroak, baina ez gurera. Gure bezeroek, finean, gure egiteko era finkatzen dute».

Bezeroak ez dira, hala ere, Mugiroko Bentaren jardura baldintzatzen duten bakarrak, orain dela bost urte azken aldiko aldaketarik sakonari egin behar izan baitzuen aurre: Irurtzun-



Ina Soravillaren herenaitonak eraiki zuen Mugiroko Benta.

OSKAR MONTERO

**Ina Soravilla: «Irurtzun-Andoain autobia baldintzatu du bentaren oraina, eta baita geroa ere. Bizi izan ez duenak ez daki zer den. Amezgaitza izan da, zalantza urteak»**

Andoain autobia alegia. Obra honek erabat baldintzatu du Mugiroko Bentaren oraina, eta baita geroa ere.

«Bizi izan ez duenak ez daki zer den. Amezgaitza izan da, zalantza urteak», aipatu du Inak, bizi izandako estuasuna oraindik

ere ahotsean igartzen zaiola. Autobiak eraginda, hain zuzen, Mugiroko Benta berri behar izan dute jabeek. «Obrak zirela eta arrailadurak egin ziren paretan eta oso zikina gelditu zen dena. Ibaiek askotan gainezka egitu zuten eta horrek kalte handia egin

digu». Etxea goitik behera txukundu behar izan dute beraz. Ez da hori, hala ere, aldaketa bakarra izan, gelak itxi eta jatetxea handitu baitute. «Autobia izanda, Iruñeko edo Donostiako hotelertara joko dute bidaiariek eta guk ez dugu horrek lehiazteko gaitasunik».

Autobia egin eta gero, obrak iraun bitartean galdutako bezeroak berreskuratu ditu Mugiroko Benta, eta Ina Soravillak erran duenez, «pixkanaka-pixkanaka lehengo egoerara itzultzen ari gara». X

### Donamariako Benta

## Bide berriak jorratuz

IMANOL LUZURIAGA pasaitarra orain zazpi urte allegatu zen Donamariara bere familiarekin, bizitza berriari ekiteko asmoz. Betiko lanaz aspertuta eta kalitatearen bila iritsi zen Nafarroara eta bere asmo gutziak Donamariako Bentan zehaztu zituen.

Donamariako Bentaren historia 1845. urtean hasten da. Blasko Benta izena zuen orduan eta bertan biltzen ziren Ultzamako herrietatik etxeak saltzera Doneztebera jaitzikoak.

Hainbat urtetan itxita egon ondoren, beraz, Imanol Luzuriagak zabaldu zituen berriro Donamariako Bentako ate eta leihoak. Lehenik eta behin jatetxea egin zuen eta bi urte pasata, bost gela dituen hotel txikia. Donamariako Benta, hala ere, ez da negozio hutsa Imanol Luzuriagarentzat: «Bizi-kalitatearen bila etorri ginen hona, filosofia jakin batek bultzatuta». Filosofia jakin horren haritik, Donamariako Bentari nortasun propioa eman dioten ezaugarrien berri eman digu pasaitarrak: «Etxe goxoa da

gurea, atsegina. Hortan datza, hain zuzen, benta baten funtsa. Jatetxeak dira bentak finean, baina etxeko jabeak bezeroa tratatzeko duen eran dago berezitasuna. Harreman goxoa eta zuzena da. Guregana datorrena berriro itzultzeko gogoz joan da dila, hori da gure asmoa. Ezaugarri hauek guztiak biltzen dituen hitza, benta bera da».

Zazpi urtetan, herrian eta ingurunean sendotzea eta sustraitzea lortu du Donamariako Benta baina etengabe hasieran dagoela dirudi. Imanol Luzuriagak esku artean dituen proiektu guztiek islatzen dute sententzia hori, agian. Pasaitarrak argi azaldu digu bere ustea: «Garbi ikusten dut nik hona ez dela Volkswagen edo Ford etorriko, lanpostuak



Imanol Luzuriaga orain zazpi urte allegatu zen Donamariako Bentara.

OSKAR MONTERO

sortuko badira kooperatiba mailan izanen da, jende gutxirako. Lanpostuak, turismoaren aldetik sor daitezke. Inbertsioak egin behar dira baina oinarriak ezarrita daude. Finean, ingurune

zoragarria daukagu, polita eta lasaia, eta horri etekina atera behar diogu. Guztiok bildu eta joratu nahi dugun bidea finkatzea baino ez da gelditzen».

Ildo horretan Bertizko Partzuergo Turistikoak orain arte egindako lana ontzat eman du Imanol Luzuriagak, «baina lanean jarraitu behar dugu, ezin gara hemen gelditu». Donamariakoak, adibidez, «gurea hemendik kanpo ere ezagutarazteko» beharra azpimarratzen du.

«Madril, Alacant, Bartzelonatik etortzen dira gure hotelera. Baserririk giroa bilatzen dute baina hirian duten erosotasunari uko egin gabe. Beraz, daukaguna aprobetxatuz, bide horretatik jarraitu behar dugu, ikus dezatela hemendik kanpo ere bilatzen ari direna badaukagula».

Hemengo hemendik kanpo ezagutarazteko nahi horrek, hain zuzen, etxean herriko eta inguruko artisauen lanarekin erakusketak antolatzea eraman du pasaitarra. «Bertakoa bultzatu behar dugu beti. Baina horretarako, Donamariako Benta egiten ari dena ez da nahikoa, guztiak egin behar dute berdin lanposturik sortu nahi badugu behintzat». Artisauen lanak giro berezia ematen dio Donamariako Bentari. Jatetxean, mahai eta aulkien artean, edonora begiratuta ere bitxikeriaren bat harpatzen dute bertako bezeroen begiek. X

**Imanol Luzuriaga: «Bertakoa bultzatu behar dugu beti, baina horretarako Donamariako Benta egiten duena ez da nahikoa. Guztiak egin behar dute berdin»**

FELISA G...  
ehun urte...  
ko Bentar...  
bereko bo...  
eta bizi iz...  
mako Uda...  
behera ib...  
bidaiariei...  
eskaintze...  
Felisa G...  
zuen erre...

Felisa...  
haren sei...  
bere gain...  
horien se...  
egun, Fe...  
bere lau...  
mako Be...  
biztanle...

Felisa...  
jaioa da...  
lanleku...  
eta sust...  
bertan a...

Aita et...  
eta Cons...  
eta gidar...  
duretan...  
guztia b...

Felisa...  
rengand...  
tan Ultz...  
zen. Na...  
errepide...  
tako bes...  
zala, fin...  
ziren le...  
tzamara...  
hortaz, l...  
zik, gure...  
zaintzek...  
«Horreg...  
arkupea...  
izate...

ak, mendetako historia

Ultzamako Benta

Belateko tunela...

FELISA GOÑIREN familia orain ehun urte ailegatu zen Ultzamako Bentara. Orduz geroztik, sendi bereko bost belaunaldi lan egin eta bizi izan dira bertan. Ultzamako Udalak errepidean gora eta behera ibiltzen ziren gurdietako bidaiariak non jan eta non lo egin eskaintzeko eraiki zuen etxea eta Felisa Goñiren aitona hartu zuen errentan 1896. urtean.

Felisaren aitona ondotik haren seme-alabek hartu zuten bere gain bentaren ardura, eta horien seme-alabek gero. Gaur egun, Felisa Goñirekin batera bere lau seme-alabak dira Ultzamako Bentako arduradun eta biztanle.

Felisa Goñi Ultzamako Bentan jaioa da orain 58 urte. Bizitoki eta lanleku izan du Belateko etxea eta sustraiak sendo bota zituen bertan aspaldi.

Aita eta ama, Benancio Goñi eta Constanca Ezkurra, maisu eta gidari izan ditu bentako arduratuen. Egun, ikasi beharreko guztia badaki.

Felisa Goñik aitona eta aita-rengandik ikasi zuen hastapenetan Ultzamako Benta zer izan zen. Nafarroako herrietan eta errepideetan barrena barreiatutako beste hamaika bentatan bezala, finean, gurdietan ailegatu ziren lehenengo bidaiariak Ultzamara. Ultzamako Bentak, hortaz, bezeroentzat ostalua ezezik, gurdia eta zaldiak gorde eta zaintzeko lekuri ere bazuen. «Horregatik ziren hain handiak arkupeak, gurdia sartu ahal izateko».

Gurdien ondoren, alabaina, lehenengo autoak iritsi ziren Ultzamara ere, eta Bentak behar berriei erantzun behar izan zien. Orduan, Felisa Goñiren aitak gasolindegia jarri zuen etxe alboan 17 urte besterik ez zituela. Gaur egun, Felisaren anaia da gasolindegiko jabe eta etxe aurrean dago kokatua.

Hainbat eta hainbat urtetan familiaren bizitoki izandako etxea, azkenik, erosi egin zuten Goñitarrek: «Etxeak berrikuntzak behar zituen baina horretarako erosi behar genuen». Lehendabizikoz ordura arte izandako ganadua —«Bentak ez baitzuen diru gehiegi ematen eta haziendarekin lagundu behar izaten zen etxea aurrera ateratzeko»— kendu egin zuten.

Hutsik gelditutako lekuari esker sukaldia eta jatetxea handitu zituzten, ostalua jarri zuten eta sotoan, berriz, ikuztegia, bodega eta gordailua egin zuten. Lehen solairuan ziren gelak ere guztiz berritu zituzten. Ordura arte bainugela bakarra zegoen hamabost gelentzat eta, etxea erostean, gela bakoitzean bainugela jarri zuten.

«Inor ez da gu bezain isolaturik geldituko» • Negua eta uda gaua eta eguna bezain ezberdinak izaten ohi dira Ultzamako Bentan. «Zubiak kenduta, lasaia izaten da beti negua. Udan, berriz, oporrak direla edo ez direla, jendea gehiago ateratzen da, asteburuetan batez ere».



Felisa Goñi da Ultzamako Bentako arduraduna.

OSKAR MONTERO

*Felisa Goñi: «Haur bat besterik ez nintzela ere, askotan entzun nuen tunela egingo zutela, baina aita zenak beti erraten zigun ez berak ezta guk ere ez genuela ikusiko»*

Urte batetik bestera ere aldatuak izaten dira, ez baitira garai guztiak berdinak. «Dirua dagonean errazago ateratzen da jendea».

Etxea erosi zuten garaia oso ona izan zela gogoratzen du Felisa Goñik eta azken urteetako beharakada ere nekazaritza turismoari emandako bultzadari esker gairatzen ari direla nabarmendu du.

Ultzamako Bentak, hala ere, badu gaur egun, garaian garaiko

egoera ekonomikoa baino aurkari arriskutsu eta kaltegarriagorik, Belateko tunela, alegia. «Haur bat besterik ez nintzela ere, askotan entzun nuen tunela egingo zutela baina nire aita zenak beti erraten zigun ez berak ezta guk ere ez genuela ikusiko». Zurrumurrua baino ez zena, ordea, egia bihurtzen ari da egunero Belaten. Orain urtebete hasi ziren lanak eta honen amaieran edo hurrengoaren hasieran bukatuko direla iragarri dute Na-

farroako Gobernuako arduradunek.

Egia onartzea gogorra izan da Felisa Goñirentzat, baita familiako kide guztientzat ere. Aurpegia iluntzen du Belateko tunelari buruz hitz egitean. Obrak ofizialki hasi zirenean, hain zuzen, Ultzamako Bentan bazkaldu zuten Nafarroako Gobernuako kide eta lanak egiten ari diren enpresetako arduradunek. «Hori izan da egunik tristeena. Bazkaria zerbitzatzen genien bitartean estu eta larri ginen etxeko guztiak eta arnasa hartzea ere zail egin zitzaigun». Izan ere, kalte handia egingen dio Belateko tunelak Ultzamako Bentari, «inor ez da gu bezain

isolaturik geldituko».

Tristura uxatzea zaila bada ere, etorkizunari ilusioz egin nahi dio aurre Felisa Goñik eta bere asmo berriak plazaratu dizkigu: «Anaiak hemen duen gasolindegia Belateko tunelaren sarrerara eramanez dugu eta bertan, ogitartekoak eta bazkari azkarra emateko jatetxe txikia jarriko dugu». Ultzamako Benta, berriz, ahal duten bitartean zabalik eduki nahi du Felisa Goñik, «nik ez baitut hemendik inolaz ere aldegin nahi».

Erabakia, hala ere, ez dago soilik Felisa Goñiren esku, berak erraten duenez «zaila izanen baita, behin Belateko tunela irekita, Bentari eutsi ahal izateko adina bezero lortzea». Denborak erranen du. X

ak ekarri ondoan. o benten



era txu-beraz. Ez ta baka-jatetxea izanda, hotele-eta guk eko gai-

obrak to beze-lugiroko ik erran kanaka zen ari

orain u zen itara. RO

Bartze-ra gure i giroa ina hi-isunari Beraz, betxa-tik ja-i, ikus kanpo direna

tendik izteko zuzen, ingu-arekin raman bul-na ho-Benta hikoia, berdin adugu k giro ariako i eta egira-arrareroen



Lizarrustiko benta berriro eraikitzeak asmoa dute Miguel Barandiaran eta Maria Jesus Urteagak.

OSKAR MONTERO

*Maria Jesus Urteaga: «Isabel Benta erre zenean, hona etortzen zen jende guztiari ezin deus eman, hori zen niretzat gogorrena. 'Gizajoak!', pentsatzen nuen»*

Lizarrustiko Benta

Betiko benta, suak erre arren

ISABEL zuen izena Lizarrustiko bentak. Orain ehun urte baino gehiago eraikia, bertako bi artzainena izan zen, Maria Jesus Urteaga lazkaotarraren anaiak erosi zien arte. Emaztearekin ailegatu zen bertara, baina konformatu ez eta arrebak ezkonberriari saldu zion orain 33 urte. Maria Jesus urtebete zeraman ezkondata, hiru hilabeteko alaba besoetan zuela, Olaberriako Miguel Barandiaran senarrarekin eta gurasoekin Lizarrustiko bentara iritsi zenean.

Bost seme-alabekin —Miren Isabel izena du bigarren alabak, bentari izena eman zion emakumearen omenez— eta senarrarekin batera, berriz, hainbat urtetan bere etxea izandakoa su artean nola kiskaltzen zen ikusi behar izan zuen orain bost urte. Suhiltzaileak ailegatu zirenerako ez zegoen ezer. Venta Isabel dioen kartela baino ez, jada ezer gordezen ez zuen pareta batean zintzilik.

Orri bi hauetan ageri diren Nafarroako benten artean Lizarrustikoa zen, zalantzarik gabe, hasierako zentzuari hobekien eutsi ziona. «Lehenengoak bezalakoa zeñ», laburtu du Miguel Baran-

dianek bere bentaren izaera. «Ez genuen jatetxe handirik, ez plater berezirik». Solomoa, urdaiazpikoa, arrautzak, gazta. «Etxekoa ematen genien gure bezeroei», gaineratu du Maria Jesus, leihotik bere bentako paretei —gelditzen diren harriek— begiratzen diela.

Lizarrustiko mendatean gora eta behera Nafarroatik eta Gipuzkoatik heldutako bidaiariak, kamioi gidariak eta mendizaleak izaten zituzten bezero Lizarrustiko Isabel bentan. Gaintzekoetan bezala, jai egunetan, oporretan eta zubietan izaten zuten lan gehien Lizarrustin ere. «Aste Santuan, hiru lagunek egon behar izaten zuten ostaluan zerbitzari», gogoratu du Miguel Barandiaranek.

Isabel benta erre zenean, 33 urtetan familiak bildutako guztia ere errautsetan galdu zen. Maria Jesusen ahotsean garai hartako oroitzapenak sortzen dion tristura nabari da.

Berak eta bere sendikoeak galdituztenagatik askotan negar egin badu ere, «hona etortzen zen jende guztiari ezin deus eman, hori zen niretzat gogorrena. 'Gizajoak!', pentsatzen nuen, guri

etxea erre eta zuek deus gabe etxera bueltan».

Egun etxe dute baserrian ere ostatu txikia jarri dute, «etortzen dena behintzat, esku hutsik joan ez dadin». Hainbat urtetan egindako bizitza berarekin jarraitu dute bertan, ostaluararekin eta ganaduararekin, «baserri giroan, bada», Miguelek erraten duen legez. Eta baserri giro hori, atetik sartu eta zintzilik dagoen zintzariaren hotsak bisitariaren etorrera iragartzen duen une beretik somatzen du Miguel eta Maria Jesusen etxean sartzen den edonork. Kanpoan hotz badago ere, etxeko berotasuna, bertan bizi diren harreraren berotasuna, finean, somatzen da ezer baino lehen. Sukaldean suak semeentzako bazkaria berotzen duen bitartean, Isabel benta erre zen une beretik buruan darabilten asmoaren berri ematen digute etxeko jabeek: «Gure benta berriro zutik jarri eta ikusi nahi dugu», Miguelen hitzak.

Izan ere, ez da orain bost urtekoa Isabel etxea erre den lehenbiziko aldia eta orduan berriro eraiki bazuten ere, zergatik ez orain? «Argindarra jartzen badigute egingen dugu». X

Xanti Begiristain

## Hiruko Gobernua ere berandu

Dirudenez, hiruko Gobernuarekin ere gauza batzuk behintzat ezer gutxi aldatu dira orain arte. Mintzatzen ari naiz oztopo fisiko eta sensorialei buruzko Foru Legeak duen Departamentuarterko Batzordeari buruz. Kontua hobeki uler dezazuen, esan beharko dut lege horrek dioela Departamentuarterko Batzordea urtean bitan elkartuko dela. Dagoeneko bilera hori burutua beharko genuke Eguberriak baino lehenago, baina gutxitu fisiko eta sensorialen kolektiboen zoritxarrerako adierazi behar dugu, ez bakarrik bilera hori ez dela gauzatu, baizik eta deia ere ez dutela egin oraindik.

Gauzak horrela, pentsa dezakezue zer-nolako animo eta konfiantza sortuko digun Nafarroako Gobernu berriak.

Kontua da, Batzorde horrek, teoriarik behintzat, garrantzi handia duela lehen aipaturiko gizarte talde horientzat, zeren eta bere eginkizunak honako hauek baitira, alegia, Lege betetzearen jarraipena, eta betetzen ez den kasuetan santzionatu eta betearaztea. Ikusten denez, oso gauza arrunta, hau da, legea betearazi edo bestela zigortu merezi duena. Baina

hemen, berriz ere frogatzen dugu ez garela bakarrik gu arruntasunik kanpo gaudenak, baizik eta gu babestu beharko gintuzketen lege, arau eta batzordeak ere bai, ez dabilzalako normaltasunez.

Nafarroako Gutxitu Fisikoen Koordinakunde-Elkargoa orain dela hamazazpi bat urte sortu zuen pertsona talde batek, elbarrian eskubideak aldarrikatu eta defenditzeko. Legea, Arauak eta Batzordea duela ia-ia bederatzita urte lotu ziren borroka handi eta luzea egin ondoren, eta orain begira zer-nolako poza eta grazia! Hainbeste denbora eta lan honetarako: Nafarroako Gobernuak berak egindako bere lege berezia oso gutxi betetzeko eta bat bera ere ez santzionatzeko eta okerrak zuzentzeko; zeren eta, sinets ezazue, legehauste pila ikaragarria egin baita Nafarroa osoan, eta oraindik jarraitzen da egiten; hala eta guztiz ere, behin ere ez zaio santzionik ezta zigorrik ere jarri inori. Beraz, berriro ere, «izorratuenok izorra gaitzen gehiago!».

Baina birpasa dezagun pixka batez azken urteotako historia Departamentuarterko Batzorde horri dagokionez: Lehenengo legegintzaldian PSNkoak izan ziren Gobernuan, eta ezertan luzitu baldin baziren izan zen, Batzordea berandu jartzeagatik martxan eta deus gutxi egiteagatik. Bigarrenean UPNkoak aritu ziren agintean baina tartean bi urteko etenaldia egin eta gero; beraz, Luis Antonio Aiesak borondate ona agertu bazuen ere, oso berandu hasi zen biltzen Batzordea eta gutxi aurreratu zen. Gainera, agintaldiaren bukaera arte Batzorde buruak ez zuen aplikatu nahi izan santzioen legea, eta hori dela bide, zigor-lege hau oraindik estreinatu gabe dago. Bukatzeko, azken legegintzaldian honetan, denok dakigun bezala

Javier Otano, Juan Cruz Alli eta Iñaki Cabases ditugu Gobernu buru, eta hasieran esan dudak bezala, dagoeneko zazpi hilabete igaro dira azken bilera izan genuenetik eta Batzorde buru berriak guri ez digu inolako bizi-seinalerik eman oraindik.

Ikusitakoak ikusirik, gure Koordinakundean hasi gara jadanik pentsatzen hartu beharko dugula beste erabakiren bat eta Parlamentuari planteatu beste funtzionamendu moduren bat, zeren eta orain arteko jokabideak demostratu baitu deus gutxi egin eta egingo duela gutxitu fisiko eta sensorialen alde, berdin jarraituz gero.

Hiruko Gobernu honi, Aurrerabideko Gobernua deitu zioten bere kideek, baina gaur egun arte demostratu dutena da, guri dagokigunez behinik behin, Bordatxuriko asto beltz zaharrek bezalaxe egin dutela: bi urrats aurrera eta bat eta erdi atzera.

Momentuz behintzat, jarraitu beharko dugu praktikatzeko gure *benetako* bokazio kutun eta begikoa, hau da, protesta eta erreibindikazioarena. ■



Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

## Mikelestorena eta Cerura nai duenac ar dezaquean vide erraza

Ezin uka nafar gobernuaren babesean berriki argitaratu Etxeparearen edizioa agertzeak bereziki poztu gaituela. Guziarekin ere egokitu agintariekin erakutsi duten ez ohizko ekintza hau ez dugu nahi adina asegarririk izan, alderantzizki jarrera hagitzez usuago pairatu beharrekoa duguna baita, bortitz eta gorrotagarriagoa dena bestenaz. Geure aldetik ez dugu *patrae procerorum* zurikeria labanaren salaketa egiteko inongo asmo zekenik, ez eta hurrik eman ere, egia esatea zilegi izan arren, eta halako batean *virus vasconicus* arraro batek jota berriz ere beste nafar batek izkriatutakoaren edizioa karrikaratzeko desira alboratu ezina agertuko balute, eta asmoa hutsean ez geratzeko, gure ahantziazitako beste bat bertaratu nahiko genuké, Jose Antonio Mikelestorena hots. Naski horren lausengatirik izan den *Gran enciclopedia navarra* delakoan gure abade lesakarrak ezteula sarrerarik izan, ez eta alipamenik ere jaso, eta erratu samar lebilke haren bilatzera bertara lihokena. Beraz hutsegite erzo horren alde edo molde zuzentzeko hona hemen berri andana labur bat.

Jose Antonio Mikelestorena Endara bortziritarra genuen sailhets guzietarik ere, aita Etxalarko eta ama Lesakako baitzituen, berau 1710. urteko azaroaren 7an sortua eta 1785. urteko urriaren 27an zendu zelarik amaren ber herrian. Gazte zeneko Miguel Obiria erretoreak eraginua edo, eliz ikasketak Iruñean hasi zituen eta 1734. urterako Irungo kapelaua genuen. Donostiako moja oinutsien bikari eta kapelau gisa ere aritu zen, Lesakako erretoretza erdietsi arte behinik behin. Bere gogoa non zitekeen ezta azaldu beharrik ere. Dena dela Donostian etzuen gomuta txarregirik laga eta Andoaingo Manuel Larramendi haundiaren lehengusina zen Hernaniko Manuela larramendi zena honela zen mintzo 1748. urteko eskutitz batetan: *«Nos predica un señor sacerdote angelical y crea vd. tengo gran complacencia cuando oigo a Boneti. Se llama Miquelestorena. Todo al alma y al entender doctrina: hoy de la gracia. Aseguro a vd. que en cualquier parte hubiera lucido. Y el vascuence claro, hermoso, sin mezcla ninguna. La cuaresma también la tiene y estoy muy gozosa. Si el P. Isla tiene auditorio este angelito de Miquelestorena no lo tiene menor. Discurro que a la hora de ésta ya se habrán hecho más de cien confesiones generales, tal es su compunción y destreza»*. Beraz predikalari bezala izan zezakeen ospea etzen edonolako izanien, Isla aitarekin erkatua izateko bederen.

Idazle gisa burutu lana eztegu gura adina bezala ezagutzen. Badakigu Hernaniko mojen *San Agustinen erregela* edizioaren sarrera idatzi zuela, baina gureganatu den lanik aipagarriena bere *Cerura nai duenac ar dezaquean vide erraza* eskuliburua genuke. Egun ezezagunagoa zaiguen lesakar honek bere lanaren bost edizio desberdin ezagutu zuten, Iruñean agertu zirenak. Lehen-dabizikoa *Iruñeco Martínez librugullearen ondorengoa echean* agertu zuen 1749. urtean, marrazki ugariz hornitu 114 orrialde-tako ale txikerra; bertan Jesusen bihotzaren bederatziturra dakar hala nola zenbait eliz kantu: *«Gure gusto, gure atsegin, gure Jesus Maytea, cere biotceco suan, erre zazu gurea»*. Ezagutzen den ale bakanetakoa Aranako Kontrastako abatea zen Eusebio Larramendiri erosi zion Astigarragako apezta genuen Felix Agirrek 1933. urtean, eta azken honi Jesus Zilbet Azparren irunsemeak bererosi zion 5.000 pezetatan. Bigarren edizioa 1751. urtekoa dugu, *Gerontimo Anchueta librugullearenean*. Honen berri Vinsonek eman zigun, baina egun ez omen da arrastorik ere geratzen. Hirugarrena *Joseph Radaren echean* inprimatu zen 1754. urtean, eta Isidoro Diez Ultzurruno anaf frantxikotarrak erabili zuten Mendizabalen desamortizazioa zela eta Zildozen apezta zegoela. Azkenik, datarik gabeko beste edizio bi daukagu: Jose Radaren irarkolan moldetutako bigarren bat, eta *Longas echean* ateratakoa. Azken hau edizio laburragoa dugu, 92 orrialdetakoa. ■



Nafarroako banakako txapelketako hirugarren jardunaldiko partida, 1996ko otsailaren 2an jokatuak. **J. M. Perez Reclusa**, 2.035 ELOkoa — **J. J. Cortes**, 2.255 ELOkoa.

1.d4,Zf6; 2.c4,e6; 3.Zc3,Zb4; 4.e3,b6; 5.gZ-e2,c5; 6.d5.

Erdigunea kontrolatu nahian, 6.....Ab7; 7.a3,Aa5; 8.Da4,De7.

Alfila ez galtzeko.

9.b4,b4; 10.d6.

Nahasteko gogo izugarria erakutsiz. Ongi aterako al zaie?

10.....Dd6; 11.Zb5,Dc5; 12.Ad2,a3; 13.Aa5,a5;


14.Da3,Da3; 15.Ga3,Ed8; 16.Zd6,Ec7; 17.Zb5 xa,Eb6; 18.eZ-c3,a6; 19.Zd6,Zc6; 20.Gb3 xa,Zb4; 21.Zf7.

Ez dute erregea makurtu, baina galera txikia da. Berdinketarako aproposa ote?

21.....hG-f8; 22.Zd6,Ac6; 23.f3,Ec5; 24.dZ-e4 xa,Ze4; 25.e4,a4; 26.Gb1,a3; 27.Ee2,aG-b8; 28.Ga1,Zc2; 29.Gc1,Gb2; 30.Zd1.

Ikus koadroa. Beltzen kontraerasoa gogorra da. Baina jakin behar da nola burutu.

30..... Ae5; 31.Zb2,b2; 32.Gb1, Gb8; 33.Ed2, Za3; 34.Ad3, Zb1 xa; 35.Gb1, Ad3; 36.Ed3, Gb3 xa; 37.Ec2, Ec4.



Baig

**N** tso le aurten Nafarr bidear 24an artean nen die Berts bertze ren bi keta - 25ear txoare martxo ko fin tako a ren 24 bertso zagun dira. Estitx gainea dieste

Kike

URAK ziko tx Oroitza urteeta gerra o horien Diputa ko Sail rriari e tzea Le sortu a tzen ba rriko l gutzen.

Aurte mek ka porake bada duaren tsolari idazka Leitza gehiegi dearen izatea, horrek saio b txapel zabaltz kanpor ezartze eta ba horren batean tako bi da: al bertzal Erat eragin: larien plazari berriet sortuta Iruñek renak: Nerea Oskar Gaintz tzarran heldue naiz b dabilz

# Nafar bertsoaren hitzordua

Baigorri abiatuko da Nafarroako Txapelketa eta Goizuetan izango da azken saioa, martxoaren 25ean


**N** eguko hondar asteetan ohikoa den bertso lehia burutuko zaigu aurten ere mugaz bi aldeko Nafarroan. Hilaren 25ean bideari lotu eta martxoaren 24an Saio Nagusia jokatu artean, borts tokitan emanen diote ostatu Nafarroako Bertsolari Txapelketari bertze horrenbertze saioen bitartez: hiru kanporaketa —Baigorri otsailaren 25ean, Atarrabian martxoaren 3an, eta Altsasun martxoaren 10ean—, Berako finalaurrea eta Goizuetako azken saioa, martxoaren 24an. Denetara hamasei bertsolari, ezagun eta ezezagun, zahar eta berri, ariko dira. Helburua, gaur egun Estitxu Arozenak kasko gainean daukan txapela erdiestea.

Kike Diez de Ultzurrun / Iruñea

URAK bidea egin du lehendabiziko txapelketa antolatu zenetik. Oroitzapen horrek gerra aurreko urteetara eramaten gaitu. Gero gerra osteko urte latz bezain ilun horien ondotik loratutako garaia Diputazioaren Euskararen Aldeko Sailak egindako lan ikusgarriari esker. Berriz ere gibelera tzea Lesaka aldean mugimendia sortu arte, eta, duela hamabortsen bat urtetik honat, herriz herriko lehiaketa, gaur egun eza gutzen dugun moduan.

Aurten hamasei gizon-emakumek kantatuko dute, seina kanporaketa saio bakoitzean. Beraz, bada aldaketarik antolamenduaren aldetik, Nafarroako Bertsolarien Lagunak Elkarteko idazkari berriak, hots, Josema Leitzak dioen moduan: «Zortzina gehiegixko zen, luze samarra jendearen arretari begira. Arinago izatea, horixe da gure asmoa, eta, horrek bide eman digu, bestalde, saio bat gehiago antolatu eta txapelketa beste eskualde batera zabaltzeko». Izan ere, ohikoa da kanporaketa bat Baxenafarroan ezartzea, bertze bi Mendialdean eta baten bat bertsozaleasuna horren handia ez den lekuren batean. Aurten, ordea, era horretako bi herri sartzeko parada izan da: alde batetik Altsasua, eta bertzaldetik Atarrabia.

Erabaki hori hartzerakoan, eragina izan dute, noski, bertsolarien artean lehendabiziko aldiz plazaratuko diren hiru aurpegi berriek. Hirurak 1978. urtean sortutakoak dira, hirurak ere Iruñeko Bertso Eskolan ari direnak: Ekintza Landa, Iruñeko; Nerea Bruño, atarrabiarra; eta Oskar Estanga, araitarra, Gaintzako semea zehazki. Gaintzarraren iritziz «salto handia da helduen mundura pasatzea. Ez naiz beldur baina nerbioak jiran dabilzkit. Proba gisa oso gauza



Bertsolari gazteak eta zaharrak ariko dira lehia Nafarroako Txapelketan.

JOXE LACALLE

**Ekintza Landa:** «Banoa erakustera bertsolaritza bizirik dagoela Iruñerrian ere, ez dela soilik Bortzirietako kontua»

ona izango da, konparazio moduan». Estanga iazko Nafarroako eskolarteko txapelduna dugu. Ekintza Landa ere animatua dabil, «alde handia baldin bada ere. Orain artean, eskolartekoan, Xaltoa sarian ibili naiz, eta giroa ezberdina da. Baina ni banoa erakustera bertsolaritza bizirik dagoela Iruñerrian edo beste toki batzuetan ere, ez dela soilik Bortzirietako kontua». Ekintza, egun sentikorra duenean, bakarkako lanean hobeki moldatzen da. Ne-reak, ordea, nahiago du ofiziotara aritzea eta ez du garbi ikusten nor gerta ote daitekeen txapeldun. «Irekia dago. Beti esaten da Arozenatarren artean ibiliko de-

la, baina jende gehiago ere bada-bil».

Bertsolari berriak batetik, eta Lesakako urte haieetatik sekulan hutsik egin ez dutenak bertzetik. Gutxi dira eta horietako bat Jean Louis Harinordoki, Laka izengoitiz ezagunagoa. Baigorriarraren ustez, «sobera da txapelketa urteoro-urteoro antolatzea. Txapelketak alde onak baditu, bertsolariak badirela erakusteko, baina arriskutsua izan daiteke urte urte egitea. Hobe litzateke hiru urtetarik edo. Bitartean, bertze molde bat bilatu beharko litzateke, txapelketatik kanpoko, bertsolariak lasai kantatzeko eta bertsozalea mugiarazteko. Dena den, ni gustura ariko naiz txapelketan, urteoro bezala». Lakak bertze arrangura bat atera du behin baino gehiagotan bertsoaren munduan aditu dena. Izan ere, lehenago Iparraldeko bertsolariak Hegoaldeko saioetara deitzen zituzten, Xanpun, Ezponda, Mendiburu, Laka bera. Duela hamar urtetik honat, aldiz, ez da halakorik gertatzen Hegoaldeko

**Bitor Elizagoien:** «Txapelaren bila joanen naiz, denek egiten duten bezala, baina finalean sartzea ere zaila izanen da»

saiotetan, eta hori «atzerapauso bat da. Beraz, Iparraldean bertso saioak antolatzerakoan kontuan hartzen dugu zazpi herrialde-tasuna, baina halakorik ez da haiek antolatzen dituztenean».

Nafarroako Txapelketan hasieratik dabilen bertze bat Bitor Elizagoien da, duela bi urte txapelaren jantzi zuena. Baztandarrak sekulan baino parekatuago ikusten du aurtengo lehia, gazteak hiltzen ari baitira, «Estitxu, Iñigo, Silveira eta horiek plazak egin dituzte eta gauza dira edonor estu-estu hartzeko. Niri dagokidanez, txapelaren bila joanen naiz, noski, denek egiten duten bezala, baina hagitz irekia da aurtengoa,

eta finalean sartzea ere zaila da».

Txapelketaren egiturari dagokionez, hiru bertsolarik erdietsiko dute zuzeneko txartela Goizuetako finalean abesteko, banak kanporaketa bakoitzeko. Kanporaketa sailbetan bigarren postuetan gelditzen diren hiruak Berako finalaurrea joanen dira, eta, hauekin batera ariko dira hiru kanporaketak kontuan hartuz, puntuaziorik altuena lortzen duten bost bertsolariak. Zortzikote horretatik, finean, borts, Saio Nagusia jokatzeko sailkatuko dira.

Nafarroako Txapelketari itsatsia beti agertu da dema bat edo bertze. Lehenago Iparraldean eta Hegoaldean artekoa, eta gaur egun bertsolari zaharren eta gazteen artekoa. Kexak izan dira bertsolarien aldetik, zenbait komunikabidetan sua zirikatzen ibili direlako, eta, oro har ere, kezkatuta azaldu dira komunikabide batzuetan merezi bezalako arreta ez zaiolako egiten Ekialdeko bertso lehiaketa honi. Nafarroako Bertsolarien Lagunak Elkartean argi dute uzartu behar direla bertsolari guztien ahaleginak. «Ez da batere ausarkeria —dio Josema Leitzak— hainbat belaunalditako bertsolariak plaza batean elkartzea, bertsolaritzaren aberasgarri baita. Alde horretatik, ez da egia zenbait tokitan esan dena, gazteak zaharren aurka daudela eta horrelakoak, hori ez baita horrela».

Horra, beraz, nafar bertsozaleak hitzordua badu Baigorriako, hilaren 25ean, arratsaldeko 3etan, herriko zinemaren Ondoko hauek lehiatuko dira: Xalbador urepeldarra, Amorena zugarramurdiarra, Artzallus Lapurdin bizi dena, Iruñeko Ekintza Landa, Fermin Mihura azkaindarra, eta gaur egungo txapelduna, Estitxu Arozena lesakarra alegia. X

## Irakaskuntza zintzilik

BERTSO TXAPELKETA hastekoa den honetan, komenigarria izanen da begirada botatzea nafar bertsolaritzari, eta kezkatzeko arrazoiak badira. Izan ere, azken urteotan kilokolo ibili dena, ikas-turte honetan gauzatu da, eta ez da bertso irakaskuntzaren plangintzarik nafar ikastetxetan.

Hezkuntza Departamentuak ez du begi onez ikusten Administrazioaren diruarekin Administrazioak

ez den jendea aritzea. Hala ere, Bertsolarien Elkartek plangintza mardula eta osoa aurkeztu du Diputazioan, azkeneko 12 urteotan egindako lan handiari jarraipena emateko. Urteotan guztietan Lontxo Aburuza ibili da lanbide horretan, hau da, herritik herri-ira, ikastetxetik ikastetxera, bertso moldearen nondik norakoaren berri ematen. Eta hori bertan behera utzi dute Administrazioaren zuhurkeria

dela-eta.

Ez dute aintzat hartu elkartek —Aburuzaren bitartez— urte luze horietan egindako ahalegina. Ez da soilik errima edo neurriari buruzko teknika batzuk irakastea edota zortziko handia zortziko txikitik bereizten jakitea, baizik eta ikasleei aho literaturaren jenero errota horren berri ematea.

Konparazio batera, mamitutako plangintza horretan xede hauek agertzen dira:

ikastaroak irakasleentzako eta ikasleentzako, azken 200 urteetan Nafarroa osoan bildu diren bertso sortak sekuentzia didaktikoen bidez ezagutzera eman, eta bertsoaren bitartez euskara lantzea, baita ikasleen espresabidea eta irudimena ere.

Zoritxarrez, Hezkuntzako agintariak irudimenez motz samar omen dabilza, ez baitute plangintza horren balioa eta beharra ikusten.

◆ Ainhoa Mutuberria ◆ Irakasletzan lizentziatua

# «Mito anitz galdu da»

**N**afarroako Gobernua-  
ren eta Zubietako  
Udalaren eskutik, herriko  
ohitura, mito eta bizitzari  
buruzko lana argitaratu du  
Ainhoa Mutuberria zubieta-  
rrak. Aldizkari itxura duen  
lanak arrakasta itzela lortu  
du herritarren artean eta  
dohainik banatutako 300  
aleak berehala agortu ziren.  
Hamasei orrialdetan, herri-  
ko adinduei egindako elka-  
rrizketen bidez jasotako  
informazioa islatu du zu-  
bietarrak eta lehendabiziko  
honek lan berriak egiteko  
gogoia piztu dio, aitortu di-  
gunez.

Edurne Elizondo / Zubieta

INAUTERIAK pasata lasaitasuna  
da nagusi Zubietako kale eta baz-  
terretan eta bertan aurkitu dugu,  
herria bezala lasai eta kontent,  
Ainhoa Mutuberria 25 urteko  
zubieta gaztea. Herriari, bere  
lanari eta bere asmo berriei buruz  
mintzatu gara berarekin.

■ **Nola sortu zen Zubietari buruz  
egin duzun lana egiteko as-  
moa? Eta zer jaso duzu bertan?**  
Egia erran, ez da nire ideia izan,  
Udalarena baizik, herriko histo-  
riari buruz zegoen hutsunea be-  
tetzeko asmoz. Proiektua presta-  
tu eta niregana etorri ziren nik  
egin nezan. Hasieran, beraz, lan  
bat bezala hartu nuen baina pix-  
kanaka, herriko istorio eta mitoen  
berri izan eta informazio gehiago  
lortzen nuen heinean, gehiago in-  
teresatu eta azkenean, oso gus-  
tura egin dut. Funtsean, Zubieta-  
ko historia aztertu nahi izan  
dut, elkarriketen bidez kontatu  
dizkaten istorio, mito eta ohi-  
tur bidez. Eta anitz dira.



Herriari buruzko lana argitaratu du Ainhoa Mutuberria zubieta-  
rrak.

OSKAR MONTERO

■ **Zubietako mito eta ohitura ho-  
riek guztiak aztertuz zer hel-  
buru bete nahi izan duzu?**  
Lehenik eta behin argitu behar  
dut nik aztertu dudana epea edo  
garaia gerra ondorengoa izan de-  
la. Garai hartan, hain zuzen, te-  
lebistatik ez zegoen, libururik ez  
zegoen eta irakurtzen ere ez zeki-  
ten. Orduan, nolabait dibertitze-  
ko edo denbora pasatzeko isto-  
rioak kontatzen zituzten. Gaur  
kontatzen zituzten, gainera, ba-  
teze ere. Istorio gehienak asmatu  
egiten zituzten, bai sorgin eta la-  
miei buruz bai beste hainbat gai-  
ri buruz. Baziren, hala ere, egiazko  
edo benetako istorioak ere. Ahoz  
ahoz kontatzen zituzten eta noski,  
benetako istorio horiek guztiak  
biribildu eta edertu egiten zituz-  
ten. Nire asmoa gaur egun herri-  
tar anitzentzat ezezagunak diren

istorio horiek ezagutaraztea izan  
da.  
■ **Zure lanean jaso dituzun isto-  
rioren artean, zein da zure ustez  
bitxiena edo alpagarriena?**  
Sansonen istorioa alpagarria  
da. Erraten omen dutenez, San-  
son Italiatik etorri zen Zubietara  
eta Mendaur mendira igo zen.  
Bertatik, hain zuzen, inguruko  
herri guztiak ikus daitezke arrotz  
ongi. Han zegoela, Saldiasoko eliza  
botatzea bururatu zitzaion.  
Mendaur bertako harri bat hartu  
eta habailan sartu zuen. Bultzaka  
eta bultzaka hasi zen baina ha-  
baila apurtu egin zitzaion eta ha-  
rri puskarik handiena Zubietara  
inguruko mendi magalean gelditu  
zen. Horregatik deitzen zala  
Harriaundia. Bestalde, lamien  
istorio anitz ere badago. Horieta-  
ko baten arabera, adibidez, her-  
riko mutil batekin ezkondu egin  
zen lamia bat eta haur bat izan  
zuten. Gizonak bataiatu nahi  
zuen baina lamia ez. Orduan,  
lamia haurra hartu eta bitan  
zatiatu zuen eta zati bat senarrari  
eman zion, «torri, bataiatu ezazu  
nahi baduzu» erranez. Hauek be-

zalako beste hamarika istorio da-  
go.  
■ **Mito eta istorio hauetaz gain,  
Zubietako eguneroko bizitza  
ere aztertu duzu. Nolako ia-  
zten zen?**  
Hagitz gogorra. Denak ibiltzen  
ziren lanean. Haurrak ere laster  
hasten ziren lanean, eguneroko  
jana irabazi behar baitzen eta ez  
zen lan erraza. Neskak, bere-  
hala hasten ziren gainontzeko  
haurrak zaintzen edo bestela,  
sukaldean egiten zuten lan guz-  
tientzako bazkaria prestatzen.  
Eta mutilak, berriz, artzain has-  
ten ziren gazte-gazte, bordetan.  
Eta uda partean, berriz, belarra  
moztera joaten ziren denak, ez  
baitzegoen beste modurik.  
■ **Herriko zaharrenean ahoz aho-  
ko ezagutza horrek bizirik ja-  
rraitzen al du zure ustez gaur  
egun?**  
Gaur egun aspaldiko mito, is-  
torio eta ohitura anitz galdu egin  
da. Ahoz ahoz hedatzen zirenez,  
hain justu, denborarekin, ahaztu  
egin dira, ez baitziren idazten.  
Nire amak ere anitzetan erraten  
dit aspaldi berak ere istorio anitz

bazekiela, etxean kontatutakoak,  
baina gaur egun ahaztuta ditu  
gehienak. Nire ustez, gaur egungo  
gazteek ez dute hortaz ia ezer ez-  
agutzen baina kontakizun hagitz  
interesgarriak dira. Horregatik,  
garrantzitsua da nire iritziz isto-  
rio horiek idatzi izana, behintzat  
gaur dakiguna eta daukaguna ez  
galtzeko eta ez ahazteko.  
■ **Zubietari buruzko beste lanik  
egiteko eta argitaratzeko as-  
moa al duzu lehendabizikoaren  
arrakasta ikusita?**  
Bai. Egindakoarekin gustura  
gelditu naiz eta lanean jarraitzeko  
gogo bizia daukat. Lan honetan  
jorratu ez dudana gaila denez,  
inauteriei buruzko zerbait egiteko  
asmoa dut, hagitz garrantzitsuak  
baitira gure herrian eta gure ohi-  
turetan. Bestetik, Zubietako  
emakumei buruz ere idazteko  
gogoia dut. Herritarrekin hizketan  
ibili naizenean herriko emaku-  
meek lan asko egin behar izan  
dutela ikusi dut, bizimodu gogo-  
rra izan dute baina gaur egun ezer  
gutxi dakigu beraiei buruz. Beraz,  
nire lanak bide horretatik joko  
du.

«Ahoz ahoz zabaltzen zirenez, aspaldiko mito eta istorio zahar  
anitz galdu egin da gaur egun, ahaztu egin dituzte  
herritarrek»

## P A N E LUCRANDO

ZALDI EROA

